

# t tipi t tapa

2003ko urtarrilaren 23a • XXIII. urtea



**Pedro Jose Martin**  
12 urteko tratantea

03

Hamabi urte bertzerik ez, baina borts urteko esperientzia du azien-  
da tratuan Pedro Jose Martin do-  
neztebarrak: «Baserritarrekin tra-  
tua ixteko nahikoa da» dio.




**Juan Carlos Garro**  
azpitzapeldun

25

Txirrindularitza utziko du aurten  
Juan Carlos Garro beratarak,  
baina bere herrian egindako Eus-  
kal Herriko ziklo-kros txapelketan  
bigarren izan zen.

## 04 Fermin Iriarte: Zugarramurdiko historia liburuan bildua



# t tipi ttapa

## harpidetzak 03 tarifa berriak

ESPAINIA	25 €
EUROPA	35 €
AMERIKA	105 €
Baztan, Bertizarana, Urdazubi, Malerreka, Leitza-Areso	20 €
Sara, Senpere, Azkain okinekin	30 €
Sara Herriko Etxeko Edantegian	20 €
Bortziriak, Goizueta eta Arano	DOHAINIK



# M larina

## ñauterietako zure denda

- HELDUENDAKO MOZORRO ALOKAIRUA
- Heldu eta haurrendako neurrira egindako mozorroak
- Osagarriak: pelukak, txanoak...
- ñauterietako gisa guzietako oihalak



Colon Ibilbidea, 1 • **IRUN** • Tfnoa: 943 622 210



## DATUAK...

- Hamabi urte bertzerik ez ditu Pedro Jose Martin, Doneztebekoazienda tratanteak. Duela borts urte hasi zen tratu lanetan eta bere ustez, esperientzia hori aski da «edozein baserritarrekin tratua ixteko».
- Etxean ere lanean aritzen da aziendekin. Aita ere tratantea du, osaba albaitaria eta anaia zaharrena albaitaritzak ikasten ari da. Berak DBHko lehen maila ikasten du, baina handitzean tratantea izan nahi du.



Pedro Jose MARTIN *Doneztebekoazienda tratantea*

EDURNE ZUBIETA

# «Orain etxetikazienda gehiagosaltzen dugu ferietan baino»

Joseba OLAGARAI

Noiztik ari zaraazienda tratante lanean?

Orain dela borts urte hasi nintzen, aziendekin ibiltzen nintzen etxean aitari laguntzen, eta animaliekin ohitu nintzen. Hortik tratuan hastera ez da bide handia.

**Etxeko giroak ere aunitz lagundu izanen du horretan...**

Bai, aita ere tratantea da, anai zaharra albaitaritzak ikasten ari da, osaba bat ere albaitaria da eta bertze batek harategia du Donezteben, beraz, ez da zaila nik ere afizio hori izatea, ez da harrizkoa. Etxean elkartzen garenean, beti aziendetaz solasten dugu, prezioak, kontsejuak...

**Hamabi urterekin ez dugu bertzeazienda tratanterik ezagutzen. Mundu horretan gehiago mugitzen zarenez, ba al da adin horretako tratante gehiago?**

Hemen inguruan nik behinpein ez dut inor ezagutzen. Hortikan uste dut izanen direla, Santander inguruan edo izanen da seguru aski.

**Aitarekin ibiltzen zara gehien bat tratuan... Non barna?**

**«Etxean elkartzen garenean beti aziendetaz solasten dugu: prezioak, zaldiekin non barna ibili, nola zaindu... Aitak kontsejuak ematen dizkit»**

Baztanen barna aunitz ibiltzen gara, Ultzama aldetik ere bai tarteka eta gero, hemen, Malerreka inguruan.

**Zein aziendekin ibiltzen zarete?**

Zerrikumeak, bildotsak, behiak, zekorrek, zaldia... azienda aunitzekin ibiltzen gara. Batzuk etxean izaten ditugu, bertze batzuk belagietan. Egutero egiten dietj bisita animaliei.

**Nondik elkartzen dituzue animalia horiek guztiak?**

Gehienetan ondoko herrietatik elkartzen ditugu, Labaien, Saldias, Elizondo... Gero, normalean hiltzegira eramaten ditugu, baina ferietan ere saltzen dugu, baita partikularrei ere, prezio ona eskaintzen badute...

**Hemen inguruko ferietan saldu egiten da, edo jendeak ikusi bertzerik ez du egiten?**

Saldu ere egiten da. Doneztebe eta Elizondoko ferietara joaten naizela

borts bat urte izanen dira eta saldu egiten da, bai. Orain, dena den, etxean gehiago saltzen da.

**Inguru honetako feriez gain, non gehiago ibiltzen zarete?**

Santander ingurura erostera joaten gara batzuetan, orain dela gutti joan ginen. Baina inguru honetan orainazienda dexente badenez, hemen egiten ditugu salerosketak.

**...eta tratua egiteko nola moldatzen zara?**

Bada, dirua eskatu, behar bada pixko bat bajatu eta igual saldu! Regateatzen ibiltzea ere suertatzen da, horretarako argi izan behar duzu momentu horretanazienda bakoitzak duen prezioa.

**...eta prezioetaz solastuz, orain zenbaten saltzen dira aziendak?**

Orain behiak eta zaldia ditugu etxean. Gehiena behia eta zekorrek saltzen da, haragirik estimatuena delakoz. Garai honetan bildotsa ere saltzen da, baina gero ez. Hemen guttiena zaldiarena saltzen da. Bildotsaren kilo 500 pezetatant saltzen lehenago, orain guttiago. Zekorrek 600 pezeta/kiloa...



ARGAZKIA: ZUGARRAMURDI LIBURUTIK BILDUA

Zugarramurdiko Abesbatza 1956. urtean, tartean Jose Larruy organujolea eta D. Jose Otamendi apezka dituztela.

HERRIKO DATU, BITXIKERIA ETA OHITUREKIN HORNITUA

# Zugarramurdiko historia liburu batean bildu du Fermin Iriartek

«Zugarramurdi Primer milenio (Datu eta data zenbait)» izenburupean liburua eman du argitara Fermin Iriarte Irigoienek. Urtarrilaren 5ean Zugarramurdiko Akelarrenea Elkartean egin zuen aurkezpen ofiziala. Ez da sorterriari buruz egin duen lehen idazlana: «Herriko kantu bilduma bat egin nuen, eta baita ere auzo, etxe eta biztanleen errolda bat 1945tik hasiz eta aldizka eguneratzen joaten naizena». Ez da seguruenik azkena izanen.

## Koro IRAZOKI

Liburu hunen hitzaurrea Nafarroako Unibertsitateko Historia irakaslea den Francisco Javier Kaspistegi Gorasurretak egin zuen. Sarrera eta hitzaurreen ondotik, lau kapitulu nagusitan banatzen da liburua: lehenbizikoan, Zugarramurdiko mitologia, leienda eta ohiturak biltzen dira; bigarrenean Zugarramurdi aurrehistorian; hirugarrenean herriko historia XII eta XIX. mendeen artean eta laugarrenean, mardulenean, XX. mendeko historia biltzen da.

Leienden artean, Dominica Guiltzuk 1941ean Jose Miguel Barandiaran zenari kontatutakoak ageri dira. Horien arabera, Zugarramurdi Ternuatik (Terranova) etorritako marinelek sortu zuten. Historian sartuta, Zugarramurdiren lehendabiziko aipa-

mena XII. mendekoa da, 1154 urtekoa hain zuzen. 1150etik 1194ra errege izan zen Antso VI, Jakitunak (1133-1194) Pedro Ansúrez de Sotés-eri zaldi baten truke eman zizkion herriko eskubideak: «...las hierbas, aguas y derechos de rey en illa Villa que dicitur Zugarramurdi, a cambio de un hermoso caballo». XIII. Mende hasieran eskubide horiek Urdazubiko monastegiari eman zizkion Calvet Sotés, Pedro Ansúrez de Sotesen oinordekoak. Hortik aitzin, bertze aipamen ugari biltzen ditu Iriartek liburuan, tartean XVII. mendean ustez sorgin izateagatik Logroñon epaitutako zugarramurdiarren berri ematen da. Sutarra kondenatutako hamabi lagunetatik bortz herrikoak ziren.

XX. mendeko historia datuz eta udal artxiboetatik bildutako aipame-



## Fermin IRIARTE *Liburuaren egilea*



KORO IRAZOKI

**“Bizimodu errexagoa daukagu orain, baina ohitura politikak galdu dira”**

### Zergatik gogoratu zitzaitzun liburu hau egitea?

Betik ixtorioak aditzea gusatu zait, nere herrikoak ba-

tez ere. Pentsatu nuen noiz-paite afizio hau seriozki hartu behar nuela eta horixe da egin dudana.

nez aski hornitua heldu da. Hainbat bitxikeri ageri dira: 1905eko apirilaren 13an Orabideatik etorritako uholdeak eraman zuen errotako presa. 1968ko urtarrilaren 13an, Zugarramurdi eta Elizondo lotzen zituen autobuz zerbitzua bertan behera uztea eskatu zuen Jose Iriartek, defizitarioa zelako. Goizeko 5:30etan ateratzen omen zen herritik eta Poli gidaria, aski maitatua zen herrian. Azken mende honetan urte-multzo bat aukeratzekotan, 1950tik 1970erako urteak hautatuko lituzke Fermin Iriartek: «Garai hartan biztanle aunitz zuen herriak; etxe guztiak beterik ziren eta famili haundiekin gainera. Bainan erraten duten hau seguraski nostalgia pittat ere bada, garai hortan ni haurra eta gaztea nintzelako eta orotzapenek pisu haundia dute. Onartu behar dut orain hobekiago bizi gara». Gertakizun bat desagertaraztekotan, berriz, «dudarik gabe 1936 urtetako bestak suspenditu zirela gerala zibilarengatik. Urte haiek gogorrik izan ziren; udaleko aktak irakurtzerakoan hori ongi ikusten da, tristeza handia bazegoela. Hala ere gu ez gara kexatzen ahal: gerlan berean hiru herriko- seme hil zituzten bainan herrian ez zen nior fusilaturik izan, bertze aunitzetan bezala».

### Zer laguntza izan duzu, eta zenbat denbora gosta zaizu?

Lan hunekin itzuli eta buelta duela 6 urte hasi nintzen, jendeari galdezka, liburuak irakurtzen, nere oroimenak paperean ematen... bainan buru-belarri duela bi urte. Hauetan dokumentazio aunitz ikusi behar izan dut eta horretarako Udala eta apezaren laguntza handia izan dut. **Ikerketa hau egiteko, zer izan duzu zailena?**

Zailena udaltxeko paperen artean ibiltzea izan da. Dokumentazioa desorden haundian zegoen. Idazkariak xehetasun handiak idazten zuten, bainan ondok heldu zen lana, dokumentu horiek ongi gordetzea ez zioten garrantzirik ematen eta hor denbora aunitz galdu dut. Diferentzia nabari da elizako paperekin konparatuz, apezek aise hobekiago gordetzen zituztelako.

**Harrapatu izanen dituzu ezagutzen ez zenituz gertakizun harrigarri edo bit-**

### xiak, ez da hala?

Bai, adibidez, hauteskunde- etako emaitzetan gorabehera harrigarriak ikusten dire: batean gehiengoak eskuinekoei botoa ematen dutela ikusten da, eta hurrengoan, berriz, nazionalistei.

### 100 urte hauetan zertan hobetu da herria, eta zertan egin du txarrera?

Hobetu da edozein tokitan ikusten den gauza beretan: bizimodu errexagoa dauka, aurrarepen teknologikoen laguntza haundia ematen dute, antolakuntza aunitz egin dira herrian... Txarrera, ohitura pullita batzuk galdu direla.

### Aintzineko 100 urteak ezagutu ondok, nola ikusten duzu herriko etorkizuna?

Arras interesgarria. Herri ederra daukagu, ez da lanik falta eta biztanle eskasiaren arazoa buelta ematen hasi da azken 4-5 urteotan: gazteak hasi dire familiak egiten, haurrak karrketan ikusten dire... Baikor naiz.

## ZIKIRO-JATEA: HERRIKO BESTARIK FAMATUENA

Fermin Iriarteren ustez, zikiro-jatea da Zugarramurdiko besta egunik famatuena, «*auzolana, zugarramurdia-rrek denek elgarrekin lan egiteko duten borondatea erakusten duena*».

Andres Pery, Francisca Mendiburu emaztearekin eta Irene eta Domingo seme-alabekin, 1910ean etorri zen Argentinatik Barrenetxeara. Zikiro-jatea, argentinaren estilora, hurrengo urtean egin zutela adierazi zion Andres Pery bere semeari. Beraz, hanka sartzeko arrisku handiegirik gabe, erraten ahal da lehendabiziko zikiro-jatea 1911 edo 1912an egin zela. Zikiroaren bultzatzaileen artean Fermin Mendiburu dago, hau ere Argentinatik etorria. Bazkari honetara gizasemeak bakarrik jotzen ziren garai batean eta arrakasta handia hartu zuen. Bazkal ondok, soka-dantzan apezaren etxera gateko ohitura ere izan zen urte batzuetan, bertan ardoa hartuz. Gero eta jende gehiago biltzen zen, ordea, eta Jose Otamendi apezak ez zuen begi onez ikusten ohitura hau. 1962an suspenditu eta geroztik ez da inoiz egin.

Barrenetxeako Domingo Peryk (1907-1996) hartu zuen aitaren leku-



ARGAZKIA: ZUGARRAMURDI LIBURUTIK BILDUA

**Andres Peryk, 1911-12 urte inguruan prestatu zuen lehen aldiz zikiro-jatea. Domingo semeak lekukoa hartu zuen.**

koa eta bestaren arduradun izan zen urtetan. 1989ko urriaren 1ean herriak omenaldia eskaini zion, alkatearen makila eskainiz Domingori.

Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Frankeo Itundua: 34/79  
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidente:** Pello Apeztekoa.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Raket Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Raket Goñi.  
**Kolaboratzaileak:** Raket Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...  
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 e
Espainia	25 e
Ipar Euskal Herria	35 e
Europa	35 e
Amerika	105 e
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza	



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## • KOLABORAZIOAK •

### Baztango Junta Generala eta balleko herriak



**Historikoki herriek bere ondasunak izan zituzten, errotak, mediku eta maisuak ordaitzeko edo herrilurrak lantzeko ahalmenak...**

Pedro ESARTE MUNIAIN Historialaria

Aurtengoa izaten ahal da beraien agintariekiko baztandar aunitzen desgainuaren urtea. Horrela izanen da balleko herrien erdiak alkaterik gabe geldituko direla baieztatzen bada. Orain inork ez baitu alkate izan nahi. 1977-78 eta 1991-92 urteetan alkate izan nintzen eta esperientzia horrekin solasten dut; bi legealdiz aritu nintzen, ordainik gabeko albinte lanean, erra-ten den bezala.

Ez baita gutiagorako. Politikoki ez zara alkate hauteskundeon ondorioz (hauek egiten badira ere), delegazioz Balleko alkatearen izendapenaren ondorioz baizik. Honek, beraz, kargutik kentzen ahal dizu edo izendatu gabe utzi, batzutan gertatu den gauza. Baztango herri bakoitzeko alkatearen lana erlijio ospakizunak betetzea, urak eramatea, hilerria eta herrian somatzen diren premiak moldatzeko Udalarari eskatzea da.

Oraindik gogoan dut, abisu aunitzen ondotik, kontratista batek hilerrian zituen lan tresnak ateratzeagatik izan nituen gorabeherak. Hark ez zituen gutieneko betebeharrak betetzen lanak egiterakoan eta zikintzen zuena garbitzeko orduan. Berak denuntziatu ninduen eta Epaitegian 250 pezetako isuna ordaintzera kondenatua ninduten, inolako aginterik izan gabe jarduteagatik. Hau da, balleko alkatearen aginduz ari ez bazara, ez zara inor. Ondotik egindako auzi-eskariak eta errekurtsioak ere nire identifikazio zenbakiarekin egin behar izan nituen, postu horrek ez baitu ezta izaera juridikorik ere; gauza bera gertatzen zaio herriari: etxe baten jabe da (herritarren izenean errosia) baina ezin du bere izenean jarri izaera juridikorik ez duelakoz.

Baztango Junta Generala organo exekutiboa dela erraten da. Hau ere gezurra da. Junta, Balleko Udalaren kompetentziak gainditu ezin duen araudi baten arabera zuzentzen da (ordenantza famatuak). Junta General horretan landu behar diren gaiak alkatearen edo Balleko Udalaren erabakiz bakarrik eramaten ahal dira. Baztan Balleko Junta Generalak ez du bere aurrekonturik, ez du herrietako alkateei edo herriei beraiei zuzendutako diru aurrekontuak tratatzeko eskubidetik, hauek udal gaiak direlako. Honela, udala da herrietara zuzendutako diruak ematen dituen, eta, normalki, diru kopuru horiek, herriko bestak antolatzeko ere ailegaten ez direnez, adibidez, herrietako alkateak dira dirua bilatu behar dutenak –faktura faltsuak ghituz, ur ordainketatik dirua hartuz, auzolanen

gostarioa handituz, etab...-. Hori, bestetan soil-nua eginen duen akordeolari trixte bat kontratatzeko. Udaletxean tranpa tiki hauek ezagutzen dituzte, eta Balleko alkateak erreparorik ez jartzeko, bere iritzi eta erabakien morroi bihurtzen dira herrietako alkateak. Argi daude, horregatik, Junta Generalean ahobatez hartu diren erabaki harrigarriak. Nafarroako Gobernuak eredugarritzat jo ditu eta Aezkoa, Erronkari eta bertze bailaratan ezarri nahi du sistema hau. Hemen herri bakoitzak jasotzen duena jakin behar harko litzateke, eta bi taulen arabera banatzen den arren, bat bizilagun kopuruagatik eta bertzea herriak, tailenak direnak konpentsatzeko, ez zaie laguntzaile edo kargodunekin urtean behin afaltzeko ere ailegaten. Irakurleak balleko herrien umiliazioa noraino ailegaten den jakin dezan, erran behar da ez direla ezta herri gisara onartuak ere (batzuk kontzejuak dira, *pedaniak*, etab...), eta alkatetzatik leku bezala izendatzen dituzte.

Degradazio umiliagarri hau ezartzen zaio, bizilagunek bere gain jartzen duten konfidantzaren ondorioz, herrietako alkate-juratu kargura heltzen den pertsonari. Honela, gaur egun ez du inork alkate izan nahi. Baina balleko udalean karguren bat izan duten baztandarrek ez dezatela txartzat hartu; denek bazekiten demokratikoki hautatutako kargu baten umiliazioaren berri, baita Francoren garaian ere.

Historikoki baieztatzen ahal dut herriek beraien ondareak izan zituztela, errotak izan zituztela, mediku eta maisuak ordaindu zituztela, herri lurretak eremuak partikularki landu zituztela, etab...

Beranduago, XIX. mendeko bigarren erdian, Udala balleko alkateak eta herrietako alkateek, udal zinegotzi gisara lan eginez, osatzen zuten. Kontu honek zehaztasun gehiago eskatzen dituen, zenbakietan konparazioa eginen dut; zehazki, Elizondoko alkate izan nintzen azkeneko aldiak baieztatu ahal izan nuena, 1992. urtean. Erriberako herri baten udal aurrekontua izan nuen eskuetan. 106 milioi pezetakoa zen, eta horietatik 6 baino gehiago herriko bestak antolatzeko erabiltzen zen, hau da, % 6a. Bada, urte berean, Baztango Balleko Udalak 1.000 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen, eta herrietako bestetara zuzendutako dirua 4 milioi terdikoa izan zen, hau da %0,45a hamabortz herriendako. Ez da bertzelako esplikaziorik eman behar.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



ARGIA 2003-01-05

«Bakarka ibiltzen zarelarik ere talde lana bada zure gibelean, baina gero egia da barkuan zu bakarrik zarela, eta hori ere oso interesgarria da. Itsasontzian zarelarik ez duzu besteengandik zerbait itxaron behar, erabakiak zeuk bakarrik hartu behar dituzu, eta batzuetan oso denbora gutxian, ekaitzak ezustean harrapatzen bazaitu, esaterako. Zure izateaz ezagutzen duzu, gauzen aurrean nola erreazionatzen duzun».

Amaiur ALFARO  
Senpereko itsasgizona  
ARGIA 2003-01-05  
«Estreinako Binakako

Txapelketa Nagusia da niretzat, eta gainera laguna dudan Aimar Olaizola da nire bikotekidea. Oso pozik nago. Komunikabideek egindako apustueta ez zen nire izena agertzen. Asteartean, urtarrilaren 7an, ordea, jokatu egin behar nuela esan zidaten, eta ezustekoa ikaragarria izan zen. Izan ere, ez nuen uste aukeratuko nindutenik. Hala ere, barruan nago jada, eta ea Aimarrekin batera aurrera egitea lortzen dugun».

Iñaki OTXANDORENA  
Oronozko pilotaria  
Egunkaria 2003-01-09

• 11 GALDERA LABUR •



Estitxu PINATXO Euskal Kantu txapelketako irabazlea. Bera.

**Kanta bat, kantari bat eta musika talde bat?**  
Kanta Urtzen «Maite dut», taldea Urtz eta kantaria Aretha Franklin.

**Kantatzen, zer duzu nahiago: bakarka edo taldean?**  
Bakarka, dudarik gabe.

**Hainbertze aldiz adituta, buruz dakizun diska bat?**  
Chenoarena.

**Zer iruditu zitzaizun Chenoaren kontzertua Lesakan?**  
Ikaragarria. Telebistan agertzen dena baino aunitzez hobea da Chenoa eta estzenatoki gainean ez du parekorik. Izugarritzko kontzertua izan zen.

**Ahotsa zaintzeko sekretu bat?**  
Limoia eta ezitia.

**Ttikitan ikastolan ikasi eta oraindik gogoratzen duzun kanta bat?**  
Aunitz, adibidez «Pintto Pintto». Negar egin duzu inoiz kanta bat adituz? Bai, kanta aunitzekin. Adibidez, Queen-en «We are the champions»ekin. Dutxan kantatzeko ohitura duzu? Bai, beti. Aspertu eta nazkatu arte aditu duzun abesti bat? Edozein bestatan aditzen diren horiek, adibidez Safri Duo. Zer behar da kantari ona izateko? Aunitzek diote ahots ona izatea, baina nerretzat, hortaz gain kanta bat ongi interpretatzen jakin behar da, sentimenduak adierazten. Zer abestuko zenioke mutil bati bellarrira goxo-goxo? Uff... ze galdera zaila. Kostatuko litzaidake baina Urtzen «Maite dut» kantatuko nioke.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA  
ZERBITZUAK**

DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirriak eta Malerrekan  
24 orduko zerbitzua beilatokian  
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara

& 948 637404  
& 900 704704



GLOBAL  
language school  
hizkuntz eskola

- Frantsesa / Ingelesa - Multimedia  
- Jatorrizko irakasleak - Itzulpenak  
- Talde tikiak - Giro jatorra  
- Enpresendako zerbitzua - Klaseak bakarka

Hizkuntza Eskola Ofizialako  
aztarketarako prestaketa

kanttonberri 6, 31780 BERA Tfnoa: 948 63 16 16



## NEKAZARITZA



ARGAZKIA: EGUNKARIA

Herria, Pika eta ttipi-ttapako ordezkariak, diru-laguntza onartzeko sinaketa uanean.

# Udalbiltzak 36.000 euroko dirulaguntza eman dio ttipi-ttapari

Nafarroako Gobernuak azken 4 urteotan % 42 murriztu dio subentzioa

## ttipi-ttapa

Abenduaren 30ean sinatu zen akordioa Baionan, eta horren arabera, PNV eta EAKo udal-hautetsiak biltzen dituen *Udalbide Elkarlan Elkartek*, 36.000 euro edo sei milioi Pta. eman dizkio ttipi-ttapa fundazioari izen bereko aldikaria Azkain, Senpere eta Saran banat-

zeak ekartzen dituen gastuetan laguntzeko.

Ttipi-ttapaz gain, Baionako Herria aste-kariari eta Zuberoako Pika gazteen aldi-kariari ere dirulaguntza eman zioten, bakoxtari 12.000 euro.

**NAFARROAKO GOBERNUAK MURRIZKETA LATZA**  
Nafarroako Gobernuak

murrizketa latza aplikatu dizkio iaz eta aurren, orohar, euskarazko komunikabide guztiei, egunkari, irrati eta telebista elebidunen mesedetan batez ere. Ttipi-Ttapa aldi-kariaren kasuan, 1999an 42.904 euro jaso zituen, eta 2002an 24.726. Datu horren arabera, azken 4 urteotan % 42 murriztu

zaio Gobernuaren subentzioa. Epe horretan, orohar, euskarazko aldi-kariei % 17 murriztu zaie subentzioa eta egunkari, aldi-kari, irrati eta telebista elebidu-nei % 376 altxatu. Aurren, gainera, Eus-kalerria irrati eta Nafarra eta Oixe aldi-kariak inolako laguntzarik gabe gelditu dira.

## LANA

## Abenduan 579 langabetu INEMen

Abenduan 579 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, azaroan baino 17 gehiagok. Nafarroan ere nabarmen goiti egin du langabetuak, 1.154 lagun gehiago baitzeuden lanik gabe, 18.800 guzira. Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 57 gizaseme eta 35 emakume eta 25 urtez goitiko 199 gizon eta 288 emakume zeuden langabetuan azaroan. Beraz, aitzineko hilabetean baino gizon gehiago eta emakume gutxiago zeuden lanik gabe bi adin multzotan. Sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 330 pertsona, industrian 165, eraikuntzan 44 eta nekazaritzan 4, aitzinetik lanik egin gabeko 36 langabetuekin batera. Abenduan 252 kontratu berri egin ziren eskualdean, azaroan baino 133 guttiago, eta horietatik 45 bertzerik ez ziren mugagabeak izan.

**BORTZIRI UNION ANAIK**  
sukalderako altzariak

**ERAKUSKETA**  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxes: 948 637 266

**OBRA PROIEKTUAK**

- 4 Etxe berriak eraikitzeko
- 4 Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- 4 Urbanizazio proiektuak
- 4 Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • & 948 637 503 • LESAKA

**LESAKA**



**BERA**

## Udal plan berriaren proiektua hasiera batez onartu du batzarrak

Aimar Pikabea herritarra, aurten jaio den lehen nafarra izan da

**Amaia eta Ainhoa**

Abenduaren 30an egindako udal batzarrean, Fco. Javier Chocarro eta Maria Urmeneta arkitektoek abenduan aurkeztutako udal plan berriaren proiektua hasiera batean onartzea erabaki dute. Udal plana hilabete batez jendeak ikusi ahal izanen du, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean alde zuzen iragarkia jarrita. Gainera, herri osoan obrak egiteko baimenak emateari utziko zaiola erabaki da.

**Karrikarte**

Kultur Batzordeak pasa den urtean egindako proposamena zela aipatu genuen lehenago ere. Berako karrikak hilabete batez erakusketa gela handia bihurtzeko intentzioarekin sortutako ekimena zela eta herritarren margo lanak bertako denda, ostatu, ikastetxe, banketxe eta eraikin publikoetan jarriko direla ere aurreratu genuen. Ekimen honetan, zuek sortutako edozein es-tilotako pintura lanak erakutsi nahi dira bizi-



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

**Emakumeak eta nekazaritzako produktuen salmentaz hitzegiteko, egun osoko jardunaldia egin zuten urtarrilaren 14an EHNE eta ELB sindikatuek Alkaiagan Cederna-Garalurrek kudeatzen duen egoitzan.**

lagunak gaia hartuz. Baina ekimen hau aintzina eraman ahal izateko, gogoratu margo lanak otsailaren 1etik 10era Kultur Etxean aurkeztu behar dituzuela.

**Urteko lehen nafarra beratarra**

2003an Nafarroan sortutako lehenengo haurra nongoa eta beratarra! Urtarrilaren

1ean jaio zen goizeko 2:25etan Donostiako ospitalean Aimar Pikabea irazoki denok urtezahar gaua ospatzen genuen bitartean. Zorionak gurasoei!

**ADINEKOAK**

**Arkupeak elkarteko herritarrek otsailaren 9an izanen dute besta eguna**

Otsailaren 9an ospatuko dute Arkupeak elkarteko bazkide beratarrek beraien besta eguna. Eguerdian, aurten hil diren lagunen alde meza izanen dute elizan. 13:30etan bazkaria izanen

da Zalain jatetxean honako menu honekin: hasteko, urdaiazpikoa, pate, fritoak, piper beteak, arrain zopa; legatza erromatar erara; sorbete; azpizuna guarnizioarekin; borts lagunendako

txanpain botila, moka tarta txokolaterekin; ardoa, ura, kafea eta kopa normala. Elkartetik jakinarazi dutenez, jatetxera hurbiltzeko autobusa izanen da 13:15etan, Ansonetatik aterako dena. Izen-ematea ilbeltzaren 30a baino lehen egin behar da, horretarako 20 euro ordainduz.

**FLASH**

**Oihan enkantea**

Gondendiaga, Artxelu, Lizuniaga eta Santa Barbarako oihan-approbetxamenduen enkantea arautzeko baldintzak onartu ondoren, hau irekian egingen dela erabaki du udalak. Hala ere, hutsean geldituko balitz enkante hori, berriz aterako litzateke baina %10-%20 merkeago.

**Euskal Kantu Txapelketa**

Estitxu Pinatxo gazte beratarrek abenduan Doneztebeko Bordatxon egindako euskal kantu txapelketa finala irabazi zuen bakarlarrien mailan. Sari hau hartzen duen lehenengo aldia ez da, joan zen urtarian ere Urtz taldearen kantu batekin irabazi baitzuen txapelketa.

**Dantza ikastaroa**

Gure Txokoa dantza taldeak aurten ere helduentzako dantza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa astelehenero egingen da, arratseko 8etatik aitzinera, apirilaren 13a arte.

**Alzuri**  
 Sukalde tresneria eta opariak  
 Landare eta loreak  
 Tfno: 948 630 370  
 BERA

**ie Iriarte-Echandi, s.l.**  
 • Aholkularitza  
 • Artekartitza  
 • Aseguruak  
 Kanttonberri | BERA | Tel eta Faxa: 948 631 169



## LESAKA

# San Fermin elkarteko batzarra otsailaren 15ean egingen da

Zuzendaritza batzordea berritzea suertatzen da aurten

**Aitor AROTZENA**

Lesakako San Fermin erretiratuen eta pentsionisten elkarteak otsailaren 15ean egingen du bazkideen urteko batzarra, aurtengoan hamakagarrena izanen dena. 18:00etan hasiko den batzarre horretan, bi urtetik egiten den zuzendaritza batzordea berritzea suertatzen da aurten. Aurkeztu nahi duten bazkideek elkarrearen ostatuan hartzen ahal dituzte horretarako paperak, eta bete ondok, bertan utzi. Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 3an, 19:00etan akautuko da. Honetaz gain, bertze ohiko kontuak ere izanen dituzte gai-ordenean: joan den urteko kontuak eta aurtengo presatatu duten egutegia eta aurrekontua.

Bertzalde, San Fermin erretiratuen elkarteak hamabigarren aldiz antolatu ditu mus, seien eta despiste txapelketak. Hauetan izen emateko epea urtarrilaren 31 arte zabalik dago.

Akautzeko, elkartetik jakinarazi dutenez, Jose Luis Olaetxea Al-bistur lesakarra Lleidak katedralako kalonje izendatu dute.



ARGAZKIA: FOTO GOIKO

Joan den urteko argazkian ageri den bezalaxe, aurtengoan ere **ttiki gelditu da San Antono** baseliza, igandeko besta egunean. **10etan, 11etan eta 12etako mezetan jendez gainezka egin zuen. Ortziralean ere, berez, San Anton egunean, Bortzirietatik, Irundik eta Oiartzundik hurbildu zen jendea meza aditzera.**

## KIROLA

### **Nafarroako paleta goma txapelketako lehen jardunaldia larunbatean jokatu da herrian**

Nafarroako Pilota Federazioak antolatu duen lehen eta bigarren mailako paleta goma txapelketaren lehendabiziko jardunaldia larunbat honetan, urtarrilak 25, jokatu da udal pilotalekuan. Joan den urte akabailan Batzoki elkarteak antolatutako herriko txapelketan txapeldun eta

azpitxapeldun izandako bikoteek parte hartuko dute, Iruña, San Adrian eta Murtxantekoekin batera. Lehen mailan, Antxordoki eta Seberiano Txoperena igantziarrak, lehen mailan txapeldun izan zirenak, Urria eta Parisen kontra ariko dira 17:00etan. 18:00etan, bigarren mailako par-

## FLASH

### **Bortzirietako bertso txapelketa**


Urteko lehendabiziko aste hondar horretan burutu zen Bortzirietako bertso eskolak bosgarren urtez antolatutako taldekako bertso txapelketa. Aurtengoan, Manolo Arotzena, Joxe Juan Zubieta «Et-xabe» eta Xabier Terreros suertatu dira garaile, parte hartu duten sei hirukoteen artean.

### **Joxe Jabier Taberna Aspetik Garfera**

Urtarrilaren 15ean 33 urte bete zituen Joxe Jabier Taberna pilotari lesakarrari ez dio kontratua berritu Aspe enpresak. Dena den, Garfe enpresarekin debuta egiteko joan den larunbatean Kadereitan. Etxaniz II. arekin bikote eginez, Garrido V eta Jexux Mari Almandoz herritarren kontra aritzeko zen. Duela bi urte pasatu zen Taberna Asegarcetik Aspera, orain Aspetik Garfera.

tidan, Aitor Oiartzabal herritarra eta B. Txoperena igantziarra ariko dira, Blanco eta Jimenezen kontra. 19:00etan berriz, bigarren mailan, Otegi anaiak Arburu anaien kontra ariko dira.

Hemendik aitzin, Iruña, Murtxante eta San Adrianen jokatu dira txapelketako partidak. Finalerdiak otsailaren 16 eta 17an eta finala otsailaren 23an jokatu dira Labriten.





## ETXALAR

# Santiago Olasagasti eta Jose Juan Pikabea txapeldun Larraburuko mus txapelketan

Partxis txapelketan, Mertxe Santesteban eta Mari Ameztoi gailendu ziren

### Joseba eta Nerea

Azarotik ari ziren Larraburua elkarteke jubi-latuak mus eta partxis txapelketetan parte hartzen. Igandero-igandero elkartzen ziren eta goizez museko partidak jokatzen zituzten eta arratsalde partxisekoak. Urtero bezala jende aunitz izan da parte hartu duena; 15 bikote musean eta 8 partxisean. Musean Santiago Olasagasti eta Jose Juan Pikabea lortu zuten irabazleen txapela eskuratzeko, Prudencio Arburua eta Leon Goienetxeri azkeneko partidairabazi ondotik. Partxisean berriz, Mertxe Santesteban eta Mari Ameztoik osatutako bikotea gailendu zen, bigarrenak Milagros Santesteban eta Kandido Egurce gelditu ziren bitartean.

Sari banaketa urtaririlaren 5ean egin zuten eta ondotik parte hartzaile guzietan bazkaria izan zuten Larraburuan. Halere, txapelketa hau



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Mus eta partxis txapelketetako finalistak eta laguntzaile batzuk.

ez da negu partean eginen dute bakarria, dagoeneko bertze batekin ere hasiak dira: magra txapelketa.

### Kultur Etxeko zerbitzuetan aldaketak

Aitzineko TTPI-TTAPA batean paratu genuen, urte berria hastearekin batera, Etxalarko Kultur Etxeko bazkide egitea beharrezkoa izanenez la puntu teknologikoa

eta liburutegia erabili nahi izanez gero. Bada, udaleko azkeneko aktan agertutakoaren arabera, aldatu egin dira baldintza horiek. Orain, liburutegia erabiltzeko ez da bazkide egin behar harko.

Hala ere, puntu teknologikoa erabili nahi duenak bazkide egin behar harko du. Oroitu bi modu daudela, bazkide arrunta (50 euro) eta profesionala (200 euro).

### Mus txapelketa Herriko

Udako geldialdiaren ondotik, udako martxa hartu dute berriz Herriko. Ortziral arratsetan, 11etatik aitzinera, mus txapelketa antolatu dute, parte hartu nahi duten guzientzat irekia. Bikoteko 6 euro ordainduz, aretxe saiheskiak, txuleta ardo botilarekin edo ostatuan bertan bi lagunentzako afaria irabaz daiteke.



### PERTSONAIA

Jose Joakin ZELAIETA

«Etxalartarren finantza munduko ezagutza aunitz handitu da»

Azkeneko 26 urte terditan Etxalarko Nafarroako Aurrezki Kutxako langilea izan denak, lana uztea erabaki du, aurrejubiliazioa hartuz. Fermina Villarreal ordezkatzu sartu zen Jose Joakin lan horretan 1976. urtean eta orain Jasone Zelaietak hartuko du bere postua. Berak adierazi digunez «azkeneko 26 urte hauetan Etxalarko bezeroen finantza-munduko ezagutza aunitz handitu da. Orain, bezeroak zure eskaintzarekin ados egon daitezke edo ez, baina inoiz ezingo diezu zurrik egin». Urte guzi hauetako balantzea positiboa egin du Jose Joakinek eta «jendearekin izan dudan tratua hagitze berezia izan da. Bezeroak eskatzen duena egitea lortzea da lan honetatik gehien bete nauena».

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORIRAK

Bera - Tfnoa: 948 630 716 - 607 404 781

SAROBÉ

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

HERRIKO

IBAYATU - JATETZEA

MANUEL TABERNA S.L. BERRIETAN  
Tfnoa - FAX: 948 630 899

## IGANTZI

## Herria ezagutuz

# Zenbait bide moldatzeko dirulaguntza agindu dute Iruñetik

Lesakako pala txapelketan bi bikote garaileak igantziarrak izan dira

## Oskar TXOPERENA

Hirurteko Plangintzan onartu ez ziren bideen moldaketei baiezkoa eman die orain Nafarroako Gobernuak. Oraingoan bertze bide batetik jo

ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Eguraldi ederrarekin eta ohiko moduan joan zaizkigu azken Eguberriak ere. Ohiko moduan diogu urteroko ekitaldiak bete egin direlako: Eguberri bezpera goizeko haurren eskia, egun bereko arratsaldean olentzeroek herrian barna egiten duten itzulia, urte zahar ilunabarreko Biltoki Ttikikoen santaketa itzulia, eta, berriak idazterakoan oraindik egiteko baldin bazegoen ere, pentsatzekoa da Errege egun bezperako kabalgata ere. Olentzeroa da, ordea, ekitaldi nagusia. Dozena erdi bat edo baziren aurten, baina agian, dena erran behar bada, bat edo bertze kenduta, ez dute lehengo urteetako mailarik erakutsi. Aurtengo berrikuntza Olentzero batek erabilitako garraioa izan da: argazkian ageri den asto polit hori.

## Ataka ttiki

Garai batean, horretaz ez dago dudarik, aunitzez gehiago erabiltzen zen eskola ingurutik Errota edo San Juan Xar aldera doaien bidea. Izan ere, herritik artoa jotzera edo Arantza aldera jotzen zirenak bertatik ibiltzen baitziren. Lehenago galtzadaz ongi hornitutako bidea izaten zen eta errotaren subasta egitarekoan hartzen zuenari galtzada zati haundiak moldatzeko baldintza paratzen zitzaion: «*devera el arrendador del molino ejecutar varias calzadas (...) desde la ataca de la puerta de Choperena asta la otra llamada de Ygalar, de ancho tres pies*».

Ikusten denez, bi ataka nagusi zituzten Landabizkarreko lur alorrek: Txopenekoa eta Igalarkoa. Azken honek izen ezberdinak izan ditu: Zaharrena, Puerta de Ygalar (1691), gero Ataca de Ygalargaña (1767), eta azkenik Atacachiqui (1821). 1955ean bidea desagertaraztea erabaki zuten Udaltzarak, («*declarar extinguida la servidumbre de paso*»), baina auzotarren kexuei esker bidaxkak bere horretan segitzen du, («*que subsista la senda de Ataca-chiqui*»).



Altzate, 19-948630786 • BERA



KARTELAK  
KAMISETAK  
BISERAK  
TXISKEROAK  
...  
PLANOAK  
FOTOKOPIAK  
KOLORATUTAK  
ENKUADERNAZIOAK  
PLASTIFIKAZIOAK  
PAPERTEGIA  
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUAREKIN  
Eztegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Javier Manterola

E E  
it rgi tza ga a  
a e a z i a

bert E EG  
abokatua  
Altzate 17 • BERA • & 948 630 763

J. RAMOS  
zolak akutxilatuta eta  
barnizatzen ditudu  
Phone 948 631 342 BERA - Phone 948 637 173 LESAKA



## ARANTZA

# Argentina laguntzeko kanpaina hilabete bukaera arte egingen da

Arropa, eskolako materialak eta bertzelako lan-tresnak bildu nahi ditu Behar Bidasoak

**Nerea ALTZURI**

Duela hilabete batzuk, Angolan beharrean dauden pertsonei laguntza eskaintzeko kanpaina parte hartu zuten herritarrek Behar Bidasoa Gobernuz kanpoko Erakundearen bidez. Elkartasun keina kontent egoteko modukoa izan zen herrian, gu baino gaizkiago bizi direnak aunitz direlako munduan, zoritxarrez. Batzutan hurbilago egoera tamalgariak aurkitzen baditugu ere, Ines Lukanbio, Argentinan San Jose herrian misio lanetan ari den aranztarraren ahotik, behin baino gehiagotan hango txirotasun edo pobrezia aditza ere badugu. Urte sail batez San Josea laguntza igorri da, eta aurten ere Behar Bidasoatik edukinontziak bidaltzea erabaki da. Janaririk ez

da bidaliko, aduanan paratzen dituzten trabengatik, baina honako hauek eman daitezke: arropa, eskolako materiala, erremintak (base-rriko, zurgintzako, soldorako...), ura ateratzeko bonbak, txitoak berotzeko inkubadorak, motoak, bizikletak, ordenagailuak, fotokopiagailuak... Beraz, zerbait emateko aukera izanez gero, hilabetea akautu arte parroki zentrorra eraman behar dira gauzak. Diru laguntza eskaintzeko berriz, herriko bantkuan egiten ahal da diru sartzea, Behar Bidasoaren kontuan.

### Azienden aitorpena 27tik 31ra


Heldu den astean, ilbeltzaren 27tik 31ra, azientak dituzten herritarrei, abereen deklarazioa egiteko deia egiten



ARGAZKIAK: XABI ZUGARRAMURDI

**Elurra goitxko gelditu da, baina estalpe xuriarekin postal ederrak ateri daitezke herrian. Alferkeriak alde batera utzita, herriko gainetan mendi-eski zale hauek ere ez dute denborarik galdu. Hilaren 11kolarunbat goiza hartu eta mendi ibilaldia egin zuten hiru lehengusuek: herritik Bulatxikira goitu eta Illurdi, Ekaitza, Ibintza, Urritzmiaka eta herrira buelta. Argazki sorta ateri zuten gainera. Denak ezin paratu!**

zaie udaletxetik. Goizeko 9:00etatik 14:00ak arteko ordutegia izanda, herriko etxeko bulegoan egin behar da azienten aitorpena.



**ALBERGEA JATETXEA**  
& 948 634179  
ARANTZA



**ANSONENA** jatetxea  
Eg er e a eta arta  
teb r eta ai eg eta e  
berezia



**SELEZONES UDANE, S. L.**

rtazi z ehe a itate ba ai gazit a  
a ai gezat a eta ge at a erabi tze re t

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

## URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

# Aerobic ikastaroa hasi da eta sukaldaritzakoa otsailean hasiko da

Zugarramurdiko Atxuri mendi taldeak urteko ateraldiak zehaztu ditu

## Margari eta Koro

Gan den urteko urrian hasi ziren ikastaro gehienak, baina bertze biren berri eman behar dugu: urtarrilaren 10ean eta Urdazubiko Ugarana Emakumeen taldeak antolatutako, aerobic ikastaroa hasi zen. Astean behin ematen da (ortziraletan) Leorlasko eskolatan. Ezpeletako monitore batek ematen du eta arrakasta handia izan duenez bi talde egin behar izan dira.

Bertze ikastaroa sukaldaritzakoa da eta Iñaki Pikabea sukaldari beratarak emanen du. Hau otsailaren 6an hasiko da, Arleunalde elkartean, eta oraindik izena emateko epea irekita dago (Marixan ostatuan, 15 euro ordainduz).



ARGAZKIA: KORO IRAZOKIK UTZIA  
Atxuria mendi taldeko kideak 1999an, Lesakako bidean, Hirimugak inguruan.

## Atxuriaren ateraldiak

Zugarramurdiko Atxuria Mendi Taldeak onartu du 2003 urteko ibilaldien egutegia. Hau da: Urtarrilean Bera; Otsailean Lesakara;

Martxoan Etxalarera; Apirilean Baigorriara; Maiatzan Itxasuko itzulia; Ekainean Urruñara; Irailan Elizondo-Harrikulunka-Urruxka; Urrian Oiartzungo itzulia; Azaroan Auza-Errat-

zu; Abenduan Otxondo-Erratzu.

Beti bezala, hilabetearen bigarren igandean egingen dira, eta izena aintzineko ortzegunarte Marixan ostatuan eman behar da.

## ZUBIETA


## Autoa ebatsi dute herrian

### Leire ORTUOSTE

Urtarrileko bigarren asteburuan lapurreta izan zen herritar baten autoa lapurtu baitzuten, arratseko 6etatik 7ak aldera. Badirudi beste auto bat lapurtu zutela beste herri batean eta gasoilarik gabe gelditu ondoren, herritar honen autoa lapurtu zuten. Zorionez, autoa Gipuzkoako herri batean aurkitu zuten, gasoilik gabe baina beste kalterik ez zuten.

### Errege bezpera

Hainbat herritan bezala, Zubietan Herriko Ostatuan afaria izan zen errege bezperan. Hogei lagunetik gora bildu ziren eta, ohiturari eutsiz, gauerdiko aldera, joaldunek joareak jo zituzten Ituren, Aurtiz eta herrian baina. Gauak luze jo zuen eta, urtero bezala, giro ederrarekin ospatu zuten herritarrek.



**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINGEGIA • OPARIAK •

000 rbai gehiag rtze aha  
a i a  
10 i t t a z ahi z  
rea

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneretik asteazkenera 9etatik 13tara eta 15etatik 19etara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328-133346. Faxes: 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

Langile Autonomoak

Nekazariak eta mendi-langileak

Nominak eta Aseguro Sozialak

Lan-kontratarako laguntzak

Enpresa berri ezberdinen sortzea

Diru-laguntza ezberdinak

Kontabilitateak

IVA eta IRPF

Errenta aitopanak

Elbarritasun eta jubilazio espedienteak

Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



**ITUREN**

## Errege bezperako afariak 90 lagun bildu zituen Herriko Ostatuan

Ur sareak berritzeko eta zola berritzeko milioi bat euroko dirulaguntza

**Iban ISASI**

Joan den urtarrilaren 5ean, Errege Bezperan, arratsaldez herriko haurrak ibili ziren herriko karraketan barrena joarak joaz. Izan ere, aspaldiko ohitura da arratsaldez umeak joareak jotzen aritzea, eta gauzez, afaldu ondotik herriko gazteak aritzea.

Aurtengoan, afarirako 90 lagun inguruk ize-na eman zuten, eta Herriko Ostatuko jangela leporaino bete zen. Ondotik, Mikel akordiolaria aritu zen giroa alaitzen. Musika tarte batean geldituz, Ibintza kultur taldeko kideek, jendarean egun horretarako iragarri zuen zozketa egin zuten (Ondoko berriari ageri dira zenbakiak).

Arratsa aurrera zihoran, eta zenbait gazte, bertze batzuk bestan gelditzen ziren bitartean etxeetara joan ziren joareak hartzera. Zubietako joaldunak bisitan ailegatu zirenean, lturengoak janzten akit-



zen ari ziren. Iturengo auzoan elkarrekin ibili ondotik, Zubietaranzko bidea hartu zuten. Behin harat ailegatuta, eta herriari itzulia eman eta ohiturazko tragua hartuta, lñauterietarako zita egin zuten. Dagoeneko 6ak inguru ziren. Bueltan zetozela, Aurtitz auzoari buelta eman ondotik, Latsaga auzoan joan ziren lturengo joaldunak. Eta handik pla-

zara. Bestak oraindik segitzen zuen ostatuan. Batzuk gosaltzera joan ziren, eta bertze batzuk lotara. Izan ere, lñauteriak bertan dira, baina horren berri erdiko gehigarri koloretsuan izanen duzue.

### Ibiltza taldearen zozketa

Urtarrilaren 5ean, errege bezperan, jendaurrean, Ibintza kultur

taldeak azken urte hauetan egiten duen zozketa egin zuen. Arratsaldez eta afarian saldu zituzten boleto guzien matrizeak kutxa batean sartuta egin zen. Aurtengoan suertatu diren zenbakiak hurrengoak dira: 1. saria: zare eder bat, 2.380 zkoa; 2. saria: bizikleta, 1.203 zbkia; 3. saria: bi lagunendako afaria Altxunea erretegi- gian, 2.323 zbkia.

**FLASH**

### Ur sareak eta zolaberritzea

Nafarroako Gobernuak, 1.087.200,85 euroko dirulaguntza eman dio Iurengo Udalari, Kastinea, Lopetexenea eta Kontsejo karriketako eta Aurtitz auzoko ur-garbiaren eta ur-zikinen sareak berritzeko eta ondotik egin beharreko zolaberritze lanetarako.

Jose Mari Gorostarrazu alkateak aipatu digunez, 2004garren urtean egingen dira lanak.

### Bide moldatzea

76.188,8 euroko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak, Ameztieta eta Aurtitz auzoetan nekazaritza esplotazioetara doazan bortz bide moldatzeko.

### Oihan probetxamendua

Asurdin 745 pinuren oihan probetxamendua egiteko lehiaketa deialdia ireki du Udalak. Hasierako aurrekontua 33.959,32 eurokoa (gehi BEZA) da eta proposamenak ibeltzaren 23rako aurkeztu behar dira.



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

### HARRI NATURALA

#### ATERATZE eta LANTZE

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaiak
Omnia antzinak	Moldurak
Lalioak	Zakaloak
Ateak	Hilarrak
Arkuak	Marrakziak
Pilareak	


'Abujakiki' Muzoa  
Zhar antzokoa Txapetua

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



**OSTATUA  
JATETXEA**

Ameztieta karrika  
DONEZTEBE



**GOIZUETA**

## Euskadi Irratiak saioa eginen du herrian urtarrilaren 31n

Biharamonean, Kike Amonarriz eta Asisko Urmeneta izanen dira Herriko Etxeko ganbaran

**Esteban AROTZENA**

Euskadi Irratian arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara Susana Mujikak aurkezten duen Laurentan Babel irratsaioa Goizuetako Herriko Etxetik eginen da zuzen-zuzenean heldu den asteko ostiralean, urtarrilaren 31n, alegia.

Eguneroko atalez gain, bereziki gure herriari dagozkion gaiak ukituko dira programan. Herritarrak bertara, Herriko Etxera, agertzea ere nahiko lukete irrati-koek. Aukera polita beraz, mota honetako saio bat nola egiten den bertatik bertara ikusi ahal izateko.

**Kike Amonarriz eta Asisko Urmeneta**

Ostiraleko ekitaldiak interesgarria ematen baldin badu, hurrengo egunerako, otsailak 1, Euskara Zerbitzuak eta Kultur Taldeak antolatu dutena ez da gutxiagorako izanen. Kike Amonarriz (ETBko aurkezle, txiste kontalari...) eta Asisko Urmeneta (Argia aldizkariako komikilaria, Euskadi Irratiko kolaboratzailea...) elkartzek duen xarma ukaezina da. Bi pertsonaiak aurretik ezagutzen, eta eskainiko duten hitzaldiak «Euskaraz dibertitzeko manierak» due-



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

Oraindik lau paretak tente ikusten baldin bazaizkio ere, orain dela hilabete batzuk berritutako Kaleko-Borda baserria ilbeltzaren 12ko gauean goitik beharino erre zela esan daiteke. Sotoan zeuzkan bost behiak eta lau zekorrek ateratzea lortu zuen Roman Eskudero, eta herriko su-hiltzaile boluntarioak berehala joan baldin baziren ere, ez zuten baserria salbatzerik izan.

la izenburua jakinda, jendeak ordu terdi algar batean igaroko duela ziurtatuta dago. Amonarrizek berak dioenez, euskararekin jostatzen dute beraien hitzaldietan, entzuleek ere partehartze zuzena dutelarik. Kike eta Asiskoren emanaldia ilunabarreko 20:00etan hasiko da Ganbara Aretoan.

ARGAZKIA: ESTEBAN

**Aurten ere ongi etorri ederra prestatu zieten Guraso Elkarte-koek Ekialdeko hiru erregeei.**

**ARESO**

## Zenbait bide eta pista moldatuko ditu Joarve enpresak

**Juana Mari SAIZAR**

Mendialdea baserri aurrean dagoen errepi-dearen eskuinaldea zartatu egin da eta Udalak konpontzeko asmoa du, zola behera joateko arriskua baitago.

Maingoneko Bordatik Leitzako mugaraino doan pistarekin batera eta Abalekuko pista Jo-

arve enpresak egitekoak ditu. Beste bi obra, Ekuiluxar eta Napoleon Bidea bukatzen dituen bezain laister, hasiko da lehen aipatutakoak egiten.

**Baserrietako kanpoaldeko argia**



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Industrialdeko plan partziala, hau da, gerorako zabaltzea, urbanizatzea eta birpartzelatzeko proiektua egiten ari dira. 50.000 metro koadro salgai jarriko dira eta plan honen barruan zenbat pabilioi, nolako altuera, kokapena, bi-deak, hornidura zerbitzuak, etabar argituko dira.

Baserrietako kanpoaldeko argindarra mart-

xan jartzeko Iberdrolak egiten duen proiektua

batzarrean onartzeko zain dago udala.

# IÑAUTERIAK, IHOTEAK, KARNABALAK

z r r a a e t a e t a g t r a t j e r a t a e a t a



**E** rat e  
 eta  
 rabi-  
 ea e  
 he ager e a  
 egi ti a te  
 h ar h eta  
 i a terie egi a  
 iza e te  
 bi a  
 t re e bie  
 ta eitza eta  
 ti et rri  
 ira bertze herri  
 a itzeta a ere  
 bi a e a-  
 ee a ariare i  
 ha i ira

**IBARBURU ERRETEGIA**

ra a egi a  
 arrai eta haragieta  
 ta e ezia izat a

**Aupa Sunbillako iñauteriak!**

Iruña-Irun errep, 59.km • & 948 45 17 62

**GAZTANDEGIA**

**LIZUN**

Etxeko  
 Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**E**

Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 948 45 06 08 - SUNBILLA

**FONDA**

ta -  
 t a

Donibane karrika  
 Tfnoa: 948 45 01 80

**E**

a terieta z r r eta e - e a  
 a ag  
 Era g zieta agarrie a air a eta  
 a e ta

Bazar denda: Abejeras, 6 • Tfnoa: 25 00 04 • Faxa: 25 00 04 • **31007 IRUÑEA**



# CONSTRUCCIONES ESTREOSIN



gi a a i a teria

Auloa etxea • Tel.: 948 450 773  
**SUNBILLA**

# OSTATUA

i t a  
ata  
ater bi at a

Karrika Nagusia 23 • & 948 451703 • SUNBILLA

**Tout POUR LA Fête**  
e - e a b e t a

Estazio karrika 13 (bi zubien artean) • HENDAIA  
Tel.: 00.33.0559.48.37.58



z r r e a air eta  
a e ta  
a erritarre a tzie  
a era zaba a  
z r r g zieta - a  
garrria  
a i a i r e i a a  
ir te ia arti a  
etar -ziria

**Prezio ezin hobekak**



gande hone-  
tan, azken ur-  
teotako iñau-  
teriek izan du-  
ten arrakasta  
ikusita, berriz  
ere jende pila bat bil-  
duko da Sunbillako  
karriketan. Ikusleek,  
gainera, hotzari aurre  
egiteko pintxoren bat  
eta salda bero pixko  
bat jan-edateko au-  
kera izanen dute, sun-  
bildarrek horretarako  
espres egiten baitute  
karroza bat.

Igandea iñauterie-  
tako azken eguna da  
Sunbillan. Aitzinetik  
ere aski asteburu mu-  
gutua izaten dute sun-  
bildarrek, ortziral  
goiz-goizetik hasita:

### Ostiralean, puxka biltzea eta emakume afaria

Ortziral goizeko  
9etan abiatuko dira  
iñauteriak, Itturburu  
ostatuan abiatu ere.  
Hantxe bilduko dira  
gazteak gosari ederra  
egiteko. Ondotik, ba-  
serrietara joanen dira  
urteroko eskea egite-  
ra, Modesto eta Joxe  
Angel akordeolarie-

kin. Etxe guzietan  
ederki hartuko dituz-  
te eskean etorritako-  
ak, dudarik ez, bai-  
nan bereziki Istolan  
eta Ezkeneko bordan.  
Izan ere, eguerdiko  
2etan bazkaria egingen  
dute bi baserri haue-  
tan.

Arratsaldeko 5etan  
txokolatada bat iza-  
nen da Ulibeltzak el-  
kartean haurrentzat.  
Mikel Salaberri  
Ulibeltzak elkartetik  
udaletxera joanen da  
eta dantzaldia arku-  
petan izanen da, bai  
haurrentzat eta bai  
helduentzat arratseko  
8etatik aitzin 10ak al-  
dera arte.

Arratseko 10,30ak  
aldera, gazteek Elor-  
Txurin afalduko du-  
te, eta emakumeek be-  
rriz, Ulibeltzak elkar-  
tean. Mikel Salaberrik  
lan aunitz egin be-  
harko du larunbat  
arratsean, emakume-  
en afalaondoa ere be-  
re musika doinuekin  
alaituko baitu.

Sunbillako iñaute-  
riak oso-osorik bizi  
nahi dituenak ez du  
atsedenerako asti han-





Helduek egiten dituzten karrozak famatu dira Sunbillako iñauterietan, baina eskolako neska-mutikoek ere mozotto ikusgarriak plantatzen dituzte. Joan den urtean, pezetaren hileta elizkizunak eta euroaren jaiotza ederki antzeztu zuten. Helduagoei bezalaxe, hauei ere ez zaie irudimenik falta!


Aitzineko orrialdean, gazteen gosariarekin abiatuko dira aurten ere Iñauteriak.

Edume Zubieta

dirik izanen. Larunbatean gazteak goizeko 9etarako Iruribietan bilduko dira gosaltzeko, eta ondotik herrian barna aterako dira eskean, goizean Modestorekin bakarrik. Arratsaldean Mikel Salaberri izanen du lagun Modestok. Eguerdian Fondan bazkalduko dute, eta herrian eskean ibiliko dira, arratsaldeko 8,30etan moztuaren dantzaldia izanen da arkupean Modesto eta Mikel Salaberriekin. Arratsean Bustiz jatetxean afalduko dute.

Aitzineko bi egunetan bezalaxe, igande goizeko 9etan gosaltzeko bilduko dira sunbildarrak, oraingoan koadrila bakoitza bere txokoan. Herria bisitariz beteko da laster, eta sunbildarrak karrozak hartuta herrian barna desfilean ibiliko dira. Aitzineko hilabeteetan egindako lana erakusteko ordua da, karroza horiek ez baitira egun batetik bertara prestatzen. Goizeko 11,30etan abiatuko da desfilea. Zerria eta bildotsaren zozketa egingen da desfilea akitutakoan. Gero, Ulbeltzak elkartean herri bazkaria egingen da.

Bazkalondoan Jalisko Band taldearen musika izanen dute giroa alaitu eta iñauteriak ongi akautzeko.



gi  
a a  
a teria

Gizonez  
eta  
Emakumezko  
Boutique

**HONORIO  
TABERNA**  
**MERKEALDIK**

Tfnoa: 948 450 109 - Merkatarien karrika 29 - DONEZTEBE

**Juan Luis Apeztegia**  
**Garraioak**



Mendeberri • SUNBILLA  
% 948 450778 • 639 723673



gi a a a teria

aria e

**HARATEGIA**  
Bertako haragia

Karrika Nagusia, 11  
Tfnoa: 948 45 15 30  
**SUNBILLA**



**Aukerako autoak**  
**4x4 autoetan modelo guziak**  
**Salerosketa zerbitzua**

Iruña-Irun errepide zaharra, 61'5 km.



**B**eti be-  
zala,  
ortze-  
gunen-  
an, ur-  
tarrila-  
ren

23an joaldunek egi-  
nen duten lehen pux-  
ka biltze eta afariare-  
kin hasiko dira  
Iñauteak Aurtiz,  
Ituren eta Zubieta al-  
dean. Larunbatean  
izanen dute segida,  
afaria eta dantzaldia  
egiten baita egun hor-  
retan.

Igandean, jantzi  
osoa paratuz, lehen  
ibilaldia egingen dute  
joaldunek herriko ka-  
rriketan barna.

**Joaldunen  
joan-etorriak**

Astelehenean, ur-

tarrilaren 27an, mo-  
zorro eta karrozek la-  
gunduta joaldun zu-  
bietarrek eta aurtizta-  
rrek bisita egingen die-  
te Iturengoei. Lasaga-  
ko Zarandia parean,  
Aurtiztik heldu den  
bidetik agertuko dira,  
eta joaldun guziek ba-  
tera, herriari buelta  
emanen diote.

Asteartean, urta-  
rrilaren 28an, Ituren,  
Aurtiz eta Lasagako  
joaldunek bisita buel-  
tatuko diete zubieta-  
rrei, urtero-urtero,  
batzuen ustez natura  
ernatzeko eta uzta be-  
rri eta ugarriak ema-  
teko egiten den ohi-  
turari eutsiz.

Asteazkena lasaia-  
goa izaten da, ba-  
koitza bere herrian  
gelditzen baita, eta

bazkari eta afarien ar-  
tean besta egiteko eta  
azkeneko gau eta  
egun luzeetan gerta-  
tutakoen balantzea  
egiteko erabiltzen de-  
na. Aurtiz eta  
Iturenen, halere, et-  
xez etxe dirua eta pus-  
kak biltzen eta kafe-  
ren bat hartzen ibilt-  
zen dira gazteak.  
Zubietan egun horre-  
tan egiten dituzten  
kontuak.

**Kontuen Eguna**

Kontuen eguna iza-  
ten da, hain zuzen,  
Iñauteetako azkena.  
Egun horretan ez da  
joararik jotzen.  
Iñauteak akitu eta hu-  
rringo larunbatean  
egin ohi da, aurten ot-  
sailaren leian.

Iturenen bazkaria



erai t  
za  
Kontsejo 14

ITURENGO  
MEMBRO OSTATUA

Ongi pasa  
Iñauteaki

ALTXUNEA  
ERRETEGIA

ITUREN

teb r ta  
be ta eg-  
eta eta  
bez erata  
ire ia  
a terieta  
ire ia  
gi a a

& 948 4 0410 t re

Teilatuko zurak  
Etxe zaharren  
moldaketa  
Etxe berriak  
Eskailerak  
Sukalde-mobleak  
% 948 451906 • 676 847281  
**AURTIZ**

**M INDEGIA**  
ZURGINDEGIA

erra E

O S T A T U A

a terieta gir aregabea

& 948 450216 - ZUBIETA





Joaldunen eta mozorroenk urteak daramazkitez Zubieta, Ituren eta Aurtizko ibilbidea egiten. Garai batean ez zen orain hainako joaldun koadrilarik biltzen, baina joareen burrunba xoko guzietan hedatzeko modukoa bai. Etorkizunera begira ere, joaldunen bestak ez du hutsik eginen, gaztetxoek gogoz eta gogor baidatoz.

izaten dute Herriko Etxean. Bazkal aitzi- netik bertsolariak eta aizkora apostua izanen dute. Bazkal on-

dotik dantzaldia izanen da eta, mozkorra izugarria ez bada, bestearekin segitzeko aukera dago, afari eta

dantzaldian.

Aurtizen xaharren afaria egiten dute eta Iturenen kontuen afaria, iñauteak heldu den



Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



E E-

ZERRATEGIA • ZUREZKO HABEAK  
MOLDURAK • ZEPILLATUA  
TRATAMENDUA AUTOKLABEAN

e 948 4 08 77 - a a 948 4

**A**steburu honetan hasita, aurten go ihoteaz gozatzeko aukera izanen dugu, honako egitarau zabal eta berexi honekin:

**Ilbeltzak 25 Larunbata**

**15:30etan** herriko eskea, trikitalari, ziztulari eta abarreko musikagile eta laguntzaileekin.

**17:30etan** Leitza-Goizueta, herriarteko pilota partidua Amazabal pilotalekuan.

**Ilbeltzak 26 Igandea**

**12:00etan** kalejira Incansables taldeare-

kin herrian barrena. Denok atxoatuta!!!

**12:00etatik 14:00etara** Txu-txu trenakalean gora, kallean behera!

**14:30etan** herri bazkaria Erleta eskolako jantokian.

**16:30etatik 19:00etara** Txu-txu trenak herriko txoko eta kaleetan.

**19:30etatik 21:00etara eta 23:30etatik 2:00etara** TRIKIDANTZakarrapean.

**Ilbeltzak 27 Astelehena**

**9:00etan** Base-rritara eskera.

**15:30etan** XURDIN, umeentzat jostaketa-arietak Amazabal pilotalekuan.



**17:00etan** ...heldu direla...

**18:00etan** ...ez direla...

**19:00etan** etxak-fuegoak.

**19:30etatik 21:00etara** eta

**23:00etatik 2:00etara** IRATS taldea karrapean.

**Tartean, noiz-baitte;** ...ailatu die-la... la,la,la,...!!!

Bazkari-atsaldekoparie Aurreran.

**Ilbeltzak 28 Asteartea**

**9:30etan** Base-rritara eskera.

**11:30etan** Incansables txarangak Erletara bisitaldia.

**14:30etan** bazkaria

**gaztelu**

**iturgintza**  
kalefakzioa  
saneamendua  
gasa

& 948 510086 / 510156  
fax: 948 610856  
LEITZA

**Xm** Xabier Martinikorena

Pladurrezko sabai eta tabikeak  
Isolamendu termiko akustikoak  
Etxe moldatzetan espezializatuak  
Sabai desmuntagarriak

948 610 578  
609 030 126  
LEITZA

gi a a a teria

**LEIZA ANAIAK**

**ERAIKUNTZAK**

Paiz Arrazola, 14 • 1.A  
Tel. 948 610 934 / 948 610 927  
Mugikorra 689 231 961  
LEITZA

**KAFETEGI • GOZOTEGI • OKINDEGIA**

**Herriko Kafeetegi**

- Ogi egin berria
- Pentsa, gosari goxo-goxoa
- Delicatessen
- Pastak, pastelak, bonbonak
- Tartak (enkarguak egun batetik bestera)

Elbarren 20 • Tel: 948 510 720 • LEITZA

**IZOZTUEN ETXEA**

Espezialitatea:  
**kroketa eta piper beteak**

**ibiliaria**

ateri a  
a a

e 948 10 04

**E**

i t a  
arta eta b a  
a t e a

Elbarren 16 • & 948 510072 • LEITZA

**SAGASTI JATETXEA**

gi a a ih tea

Tolosako bidea • & 948 610637 • LEITZA





**XX. mende haserako ezkontza? Ez horixe! Duela hamabi urte, 1991. urteko ihotetan horrelaxe atso-guratu zen leitzar koadrila. Garai bateko ezkontza, idi pare eta guzi!**

Aurreran.

**15:00etan** Kalejira koleretsua Erleta eskolako ikasle, irakasle, guraso, senide eta animatzen den guztiarekin, Incansables txarangaren doinuez lagundurik. Ondoren.

txokolate beroa eta jokoak plazan.

**19:00etatik 21:00etara eta 24:00etatik 2:00etara** GAUBELA karnapean.

**Ilbeltzak 29 Asteazkena**

**(Ihoteak amaitu direla, eh!)**

**16:30etan** "Chiriroren bidaia" filma zineman. Marrazki bizidun japoniar hauek, "Urrezko Hartza" saria eskuratu zuen

2002.ean Berlinean lehiaketan.

**Oharrak:**

- Kotxeak etxean utzi, igandean batez ere.
- Umore ona izan eta ongi pasa!

**JOSE IGNACIO ARZALLUS**

Harategia - Urdaitegia  
Etxeko txistorra



**LEITZA GARAGEA**

**PEUGEOT AGENTZIA**

Direkzio eta ordenadore bidezko azterketak



Elbarren kalea  
LEITZA

&

948 510614  
948 610646



Sucesiones de  
*José GÓMEZ, s.l.*

OIHALAK

h te a  
igar

**EROSLE**

Elbarren 20 eta 71



SAGARDOTEGIA - SIDRERIA  
**ERREKA**

En la antigua vía  
del Plazale



rte g zia ire ia  
e a eta arta

Erreka Auzoa • LEITZA • Tel 948 510625

*Lizarraga*  
harategia

948 510283 • Herriko Plaza • LEITZA

EG

EG

ge a tat a a





EG E E

- Menua eta karta
- Garaien garaiko otorduak

Elbarren 42 • & 948 510052 • LEITZA

**GAZTAÑAGA TABERNA**

**BOKATAK eta PINTXOAK**

Pizza Krugikoke bertan jan edo etxera eramateko

Elbarren, 55 % 948 610708 • LEITZA

**E**

**EDATEGIA**

«INSALUS» Ura banatzailea  
 «SAN MIGUEL» garagardoa  
 «COCA-COLA» banatzailea

**tupi tupa**

gi  
a a  
a teria

ge a tat a a

**ADUR**

**E**

Gi EG E - E E  
 EG E E  
 E  
 E  
 aba agarr a zizt rra

E barre 16 948 610864 E

**FISIOETXEA**  
 Ane Egizabal Llata  
**FISIOTERAPEUTA**

- 3 ERREHABILITAZIOA
- 3 OSTEOPATIA
- 3 Kirol eta Zirkulazio MASAIA
- 3 ERDITZE AURREKO/ONDORENGO TRATAMENDUA
- 3 ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

MUTUAK

**Huarte Gotzaia 8, 3.C - LEITZA 948 510730**

## LEITZA

# Gabonetako pilota txapelketaren finalak abenduaren 28an jokatu ziren

Nesken pala txapelketa ere antolatu zuten Belatek eta Aurrerak

### Mikel ILLARREGI

Aurreko zenbakian tokirik ez eta aipatu gabe ezin utzi Gabonetako txapelketa eta Belate pilota eta Aurrera elkarteek antolaturikoak. Lehen aipaturiko txapelketa honen finala abenduaren 28an ospatu zen Amazabal pilotalekuan arratsaldeko 17:30etan. Kadetetan jokaturiko partidua ez zen "istorio" handiko partidua gertatu. Gazte mailakoan ere berdintsu gertatu zen. Helduen mailan berriz, hasieratik ongi bideratu zuten

eta partidu serioa ikusi zen. Orokorrean ona eta ikuskizun polita. Emaizak:

- Kadeteak: Olazabal-Iriarte, 22; Mina-Betelu, 6.

- Gazteak: Telletxea-Barandarain, 9; Loiarate-Eraso, 22.

- Helduak: Bengoetxea-Mintegi, 22; Zubieta-Retegi, 20

Antolatzailleen arabera, «ikuslego aldetik partehartzea, orokorrean, ona izan da eta gure partetik pozik gaude atera den torneoa ikusita».



Gabonetako pilota txapelketako finalistak, antolatzailerekin batera.

### NESKEN PALA TXAPELKETA

Bigarrenari dagokionez, Belatek eta Aurrerak antolaturikoa, alegia, Nesken pala txapelketa izan zela esan behar. Hau Amazabal pilotalekuan abenduaren 29an ospatu zen. Ondoan ageri den koadroan, finalean jokaturiko partidua, txapeldunak eta txapelduordeak eta nongoak diren ageri dira.



### INFANTILAK

TXAPELDUNAK: G. ROTA - M. ERREA (Auritzberri)

TXAPELDUNORDEAK: M. VILLANUEVA - P. CARBALLO (Auritzberri)

### KADETEAK

TXAPELDUNAK: I. AGIRRE - S. IRAOLA (Leitza)

TXAPELDUNORDEAK: E. IRIARTE - M. IRIARTE (Narbarte)

### HELDUAK

TXAPELDUNAK: GARBIÑE - BEA (Irurita - Igantzi)

TXAPELDUNORDEAK: BEGOÑA - ROSA (Irurita)

ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGIK UTZIA

Ailegatu dira beste urte batez iñauteriak. Egitarauaren berri zabala erdiko gehigarrian duzue, baina atseguratzeko moztarokak presatzen hasteko tenorea da. Goian ageri den argazkia, berriz, 1985. urtekoa da.



## Maderas GOMEN

- \* Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- \* Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak
- \* Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu
- \* Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak

### TOLDOAK

SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

## MARTXO BITARTEKO ESKAINTZA

Eguzkitik babesteko toldo 1 erosiz gero, %10 merkeago

% 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind.-Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

### PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK,  
MOSKITERAK eta VENECIANAK



## BAZTAN

# Euskararen Plan Estrategikoa ahobatez onartu du Udalak

Kontseiluak eta LKSk eginen dute herriko taldeekin elkarlanean

## ttipi-ttapa

Euskararen normalizatzarako Plan Estrategikoa ahobatez onartu zuen Balleko Udalak, abenduaren 20an egindako iazko azken batzarrean. Horretarako, Kontseilua eta LKS erakundeak laguntza izanen du eta gehieneko aurrekontua 43.843,58 eurokoa izanen da.

2001eko ekainaren 21ean bildu zen lehen aldiz Baztango Euskara Batzorde irekia, euskararen inguruko gaiak eztabaidatzeko. Batzorde irekia izan arren, gehien bat Baztango ikastetxe ezberdinetako irakasle eta gurasoek, Doike euskara taldeak, Suinki euskaltegiak eta Xorroxin Irratiak hartzen dute parte, udaleko hiru taldetako kide banarekin batera. Batzorde honek Kontseilua erakundearekin batera lan egitea erabaki zuen, Bai Euskarari egitasmoa martxan

jarriz. Proiektu hau gauzatzeko, euskararen alde lan egiten duten taldeen, balleko gizarte eragileen eta Udalaren partehartzea nahitaezkoa da. Egitasmoa udalari aurkeztu eta Baztango euskararen Plan Estrategikoa egitea erabaki zen, LKS eta Kontseiluaren laguntzarekin. Bi erakunde hauen proiektuak ikusi eta formula mixtoa egitea erabaki da, 43.943 euroko gehieneko gastuarekin. Nafarroako Gobernua-ren Hizkuntz Politika Zerbitzuari dirulaguntza eskatuko zaio. 9.750 euroko beka izanen dute bi teknikari hartuko dira lanaren lehen eta hirugarren faseak egiteko (akordio fasea eta konpromezuak hartzeko fasea). Tartean, plan estrategikoaren fasea eginen du LKSk.

Mikel Altzuart, Bata-sunako zinegotziaren ustez, «baztandarrak euskararen normaliza-



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Almandozko Fernando Agerre eta Juanita Agerreberek Urrezko Ezteiak ospatu zituzten gan den urteko azaroan. Zorionak.

*zioaren alde gaude, gure hizkuntza delakoz eta Euskal Herriko bertze hizkuntzekin batera bizi behar duelakoz. Honelako plan batek lana eta inplikazioa eskatzen du eta hemendik aitzin udaletxeak konpromisoak hartu beharko dituzte».*

## Bozaten aire zabaleko museoa eraikitzeko lehen lanak eman dira

Arizkungo Bozate auzoan egin nahi den aire zabaleko eskultura museoa eraikitzeko lehen-dabiziko lanak eman dira. Honela, eremu horretan eginen diren zortzi bordak Lekarozko Arakan eraikuntza enpresak eginen ditu, 228.756,16 euroren truke eta eremua itxiko duen pareta Arizkungo Arado eraikuntza enpresak eginen du, 18.544,83 eurotan.

**ONASKA**  
ERRETEGIA  
Euskal sukaldaritza Arrain eta haragia

**Gierreseretan**  
**OSTATU - JATETXEA**  
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
Iturriotz Auzoa • & 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**

**FANTXIKE**  
Mertzena Opariak  
Lentzena  
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA  
Jaime Urribia 15. ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 312

**ANTIXITONEA**  
Trinketea  
Jatetxea - Ostatura  
Hotela - Trinketea  
Menu Bereziak  
Braulio Iriarte  
ELIZONDO  
& 948 581807 • 948 581853



**BAZTAN**

## Elizondo, Oronoz-Mugairi eta Gartzaingo alkate karguak bete dira

Arraiozen joan den igandean egitekoa zuten batzarra

**ttipi-ttapa**

Nekez, eta gogo handiegirik gabe baldin bada ere, pittanaka betetzen ari dira Baztango herrietako alkateen karguak. Hau idazterakoan, Arraioz bakarrik gelditu da alkaterik gabe. Errege eguneko batzarretan, Gartzainen Gileneako Angel Irungarai Elizalde hautatu zuten eta Elizondon Michel Eraso Iriart, berriki hildako Juanito Eraso musikariaren semea.

Elizondoko batzarrak bertzelako erabakiak ere hartu zituen. Puriosenea aitzinean dagoen eremuari Juanitoren lorategia izena paratu diote, Juan Eraso zenaren omenez hain zuten. Gogoratu behar da Puriosenean Baztango museo etnografikoa jartzeko asmoa dagoela.

Modu berean, herriko eta kanposainduko iazko kontuak ere onartu ziren. Gan den urtean herriak 103.355,74 euroko diru sarrerak eta 110.655,98 euroko gas-



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

**Michel Erasok Ana Mari Marinen eskutik hartu zuen alkatetzako makila.**

tuak izan zituen. Hala ere, 4.404,77 euroko saldoa du bere kontuan. Kanposainduari dago-kionez, 33.068,86 euroko sarrerak eta 15.020,78 euroko gastuak izan zituen eta gaur egun, 46.702,18 euroko saldoa du.

Ornoz-Mugairin ilbeltzaren 12an egin zuten batzarra. Florentino

Goñik hamar urtez bete duen kargua uzteko gogoia zuela jakinarazi zuen lehendabiziko batzarrean, baina bizilagunen eskariz bertze bi urtez segituko du alkate gisara. Herriaren alde lan egiten segituko du eta herritarrek ere lagunduko dutela uste du: «Azken auzolanean 60 lagun ginen» dio.

Arraiozen joan den igandean egitekoa zuten batzarra, Cristobal Bengoetxearen ordezkoa hautatzeko.

**FLASH**

**Antxitoneako zubiaren moldaketa**

Elizondoko Antxitonea zubiaren moldaketa lanak Baztangoiza erakuntza enpresak egiten ditu 82.279,80 euroren truke. Eskaintza bakarra Elizondoko enpresak aurkeztu zuen.

**Mariano Izeta beka**

Baztango ahozko tradizioa biltzeko sortu den Mariano Izeta beka Maitte Lakar Iraizoz eta Ana Telletxea Coscolin gazteek jaso dute. Urtebete izanen dute lana egiteko eta 7.813,16 euroko beka jasoko dute.

**Iñaki Otxandorena**

Ez du suerterik izan pilotari oronoztarrak aurtengo eskuz binakako txapelketan. Ustekabean sartu zen txapelketan, Olaizola II.aren atzelari gisara, baina lehen partidaren ondotik gaizki sentitu eta ospitaleratu zuten. Birika batetik haizea galdu zuen eta bizpahiru hilabeterako baja izanen da.

**Eskisari jatetxe**

**BURKAITZEA**  
ostatu erretegia  
Zugarramurdiko bidea, 3 km.

**ORDOKI** likoreak  
ERRETEGIA  
Parrilan egindako haragi eta arrainak

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
ARIZKUN

Amaia Meoki Plaza  
Elena Ezkurdia Arriada

**onegin**  
Ekodenda

**ZERBITZUAK:**  
**DIETISTA:** Gantzen neurketa, Diabetes, Kolesterolarentzako dietak, Argotzako dietak.  
**NATURISTA:** Akupuntura, Homeopatia, Naturopatia, Psikoterapia, etab.

**PRODUKTU EKOLOGIKO eta NATURALAK**  
**PRODUKTU ARTISAUAK**

Jasme Urrutia, 26, behea • ELIZONDO • 948 581 932

SENPERE

# Saihesbidea ez da karrika ondoan eraikiko ahal bezain urrun baizik

Zailtasunak zailtasun Cybergunea irekirik segituko du

**Franck DOLOSOR**

Elkartetxea herritar frangoren bilgune izan zen urtarrilaren 9an, saihesbidearen proiektuak interes handia sortu baitu senpertain artean. Ondoko urteetan egingen den bide hau beharrezkoa da egun guziz, 15 600 ibilgailuk treskastzen baitute karrika.

Informazio eta elkartrukaketa bilkura horretan aho batez jendeak baztertu zuen proiektu merkeena, hau da zubi bat bera behar ez duena, Urdazuri ibaiaren ezker aldetik lotuko lituzkena kirol-zelaia eta Donibaneko bidea. Ideia hunek etxe batzuk bota behar lituzke, ez da beraz jende ainitzen gustukoa izan.

Bildu ziren herritar gehienek ustez, untsa litake saihesbidea Dufaren garajea baino urrunago gatea su hiltzaileen egoitzaraino ala Urguriko burdin zubiraino. Gainerat, senperta-

rrek uste dute ideia ona litakela saihesbidearen bazterrak ongi apailtzea berantago pausalekuak ala etxebizitzak eraikitzeko gisan, argi baita hiri erdialdea haundituko dela.

Ez da oraino deliberatu nola eraikiko den Senpereko saihesbidea Olhako itzulbidea eta Donibane-Lohitzuneko bidea lotzeko. Bertalde, Pabeko Kontseilu Nagusiari galdeginen zaio inkesta berri bat egitea.

## Cyber-guneak irekirik segituko du

Zailtasunak izan ondoan, azkenean herriko internet guneak irekirik segituko du.

Aitzineko aldizkarietan toki hunen hestea aipatzen baginuen ere, azkenean aterabide bat atxeman dute horko arduradunek langile bat hartuz.

Cyber-guneak atek zabalik dauzka astele-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Herritar gehienek ez dute nahi saihesbidea hemendik pasatzea.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Ondoko urteetan eraikiko den bidea hemendik pasa litaik.

hen, asteazken eta ortziraletan goizeko 10:00ak eta 12:00ak artean bai eta astelehenetik ortziralerat 14:30 eta 18:30 artean.

**ferreteria**  
**Quevedo**

Santiago 31 • ELIZONDO  
Tfnoa: 948 58 02 34

**haragia xehatzeko makinak**

**m bentamiguel**  
dentsa, jantzeria eta osasuna

**Ongi zaindutako sukaldaritza Menuak aukeran**

Tafelberg  
Lakarra  
Jantzeria  
Unibertsitate



## AZKAIN



ARGAZKIAK: ENEKO JORAJURIA

### Ihauteriak

Nork asmatuko du aurten Maialen Etxeberri eta bere lagunak prestatzen ari diren mozorroen gaia? Altxalili eta Gemuku elkarteak Ihauteriak otsailaren 22an finkatu baitute, 20 pertsonako talde bat muntatu da jadanik kostuma batzuen prestatzeko, bertze urteetan bezala. Aurtego gaia sekretua atxikitzen dute oraino bainan herritarrak projektuan parte hartzerat gomitatzen dituzte. Larunbat arratsalde guziz biltzen dira 5etan Santa Mariako jantegian.

### Kiroletan jabe berriak

Mercedes Iglesias, Roger Elhorga eta Cindy Genty hirukoteak kiroleko ostaldea ideki zuen abendoren 20an. Jantegi eta edantegi zerbitzuak eskainiko dituzte, pintxoak egiten dira ere ostiral eta larunbatetan. Langile menua 10 eurotan egiten dute (dena barne). Paella manatzen ahal zaie ere telefono huntara deituz: 05 59 54 44 13.

## Kantuketan erakusketa Bil-Tokin egonen da urtarrilaren 30etik otsailaren 12a arte

### Ihaintza, Angela eta Eneko

Kantuketan Azkaingo Bil-Toki gelan bisitatzeko ahalgo da egunero 10etatik 12ak arte eta 14etatik 19ak arte.

Kantuketan erakusketa euskal kantua modu zinez orijinalen era-

kusten eta entzunarazten du, berezitasun eta berrikuntza teknologikoak eskainiz. 200 m<sup>2</sup>-ko erakusketa eremuak euskal kantuz eta musikaz gozatzeko parada ezinhobea ematen dio bisitariari.

Soinuz eta irudiz eta ibilbide harrigarri bati jarraituz, euskal kantuarren historia, gizartearen duen lekua, euskal populuarekin daukan barrietikako harremana, gaur egungo aktualitatea eta aniztasuna deskubrituko ditu.

Bisitaria boz eta musika unibertso batean sartuko da erakusketan berean entzun daitezkeen 4 orduko grabaketak eta abestirik ederrerenetan murgilduko duen ustegabeko soinudun "dutxa" bati esker.

### Elkarretaratzea

Euskal preso politikoen

hurbiltzearen aldeko elkarretaratzea Urtarrilaren 25an egiten da eguerditan herriko plazan.

### Sustengu bazkaria

Laugarren aldikotz Elizaberrin egiten da Iraun, Arkaitz eta Aratz azkaindar presoaren aldeko sustengu bazkaria. Urtarrilaren 26an finkatua da eguna. Zintzur bustitzea eguerditan hasiko da. Bazkaria denboran bertsolariak eta ixtorio kondalariak izanen dira, arratsaldea kontzertuarekin finituko delarik.

### Batera manifestazioa otsailaren 1ean Baionan

Batera plataformak Iparraldeko euskal gizartearen eragile desberdinak biltzen ditu eta herrietan elkarte bakotxari eskatzen dio plataforma integratzeko bere izenpedura emanez.

Baionan otsailaren 1ean egiten den manifestaldira parte hartzeko ere dei egiten du, Euskal departamendua, euskararen ofizialtasuna, laborantza ganbera eta berezko unibersitatea aldarrikatzeko kanpaina abiatzeko.



## LARRALDEA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldia irekia

- \* Telleri auzian, Lekarozko elizaren eskuinetik hartu eta 1,5 km-tara.
- \* Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua.
- \* 100 lagunendako lekua jarrita.

Rafa  
600 819 640  
**PINTURAS LEGUIA S.L.**  
Eztegara 26, 2.C - BERA

**zapatadenda.**  
**kalotxa.**  
**osagarriak.**  
**konponketak.**

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

## SARA

# Errugbi taldeak prestatu duen mus txapelketa otsailaren lehenean iraganen da

Urtats gauean elgarretaratze berezia egin zen presoan Euskal Herriratzearen alde

## Xan HARRIAGUE

Errugbiak mus txapelketa bat antolatzen du urte guziz bezala negu partean. Mus txapelketa hori otsailaren lehenean egun batez iraganen da, Omordia-ko gela nagusian. Izen emateak urtarrilaren 26a baino lehen egin behar dira Keinun (0559542775) edo Evelini (0559542917). Hitz ordua arratsaldeko 2etan izanen da eta afaldu nahi baduzue 20 euro gostatuko zaizue



## Euskal presoak Euskal Herrira

Aurten ere urtats gauean elgarretaratze berezi bat egin da hurbiketaren alde, gaia airean ote zen hala tenperaturak goxoak, usaian baino jende gehiago bildu zen hala nola 50 jende baino gehiago. Indarrak hoztera utzi gabe oroitazten dizuet hilabeteko azken ortziraletan, arratseko 19:00etan segitzen dutela.

## Klaseko afaria

Joan den urtean 40 urte egin zutenek, hitz ordua ukan zuten azilaren 16an klaseko afaria ospatzeko, Le Pullman ostatuan bildu ziren aspaldiko partez eta gaua xarmanki pasatu zuten giro onean.

## Errugbia

Urtea ongi hasi du Sarako lehen taldeak bitan irabazi baitu. Lehenbiziko matxa kanpoan ukan zuten, Bearnoko Sauveterren kontra, eta azken momentuan markatutako entsegu bati esker 3 puntuak ekarri zituzten etxerat irabaziz 6 eta 13. Urtarrilaren 20an berriz

Animainean aritu ziren eta errexi menperatu zituzten St Jean de Marsacqeko jokalaria 20 eta 3. Urte hastapen hori konfiantza ematen badi ere, batzuen errantetan heldu diren matxak zailtsoak izanen dira kolpatu anitz badiarelako eta bertetik batzuek txartelak ukanagatik ez direlako arituko.

## Esku balona

Esku balonean ere, urte hastapen hori baikor izan da 3 taldetik bi irabazi baitute, biak etxean aritzen zirelarik. 11 urte azpiko gazteek irabazi dute Mourenxen kontra 18 eta 10 eta helduek Assonen kontra 14 eta 13. Tartekoe, 15 urte azpiko neskek, Irisarrin galdu zuten 27-17.

## Herriko etxeko edantegiaren mus txapelketa

Orain iragaiten arden Union Basque txapelketa finitu bezain laister, Herriko Etxeko edantegiaren mus txapelketa hasiko da, otsailaren 7an. Izen emateak otsailaren 1a baino lehen egin beharko dira (10 euro).



102 Meaka auzoa  
20304 IRUN  
Tel.: 943 623 130


## TXOTX

denboraldia zabalik urtarrilaren  
19tik

- \* Astegunetan, arratsaldeko 6,30etatik aurrera zabalik.
- \* Asteburuetan, eguerdian ere zabalik.
- \* 250 lagunendako lekua jarrita.
- \* 50 autorentzat parkina. Autobusak. Klimatizatu.







## EZKONTZAK

**Carlos Rodrigo Morales Perez** eta **Celia Cruz Ortiz Tirado**, Ekuadorrekoak Beran, urtarrilaren 8an.

**Francisco Javier Aranberri Epelde** eta **Miren Begoña Rozas Errandonea**, Elgoibar eta Berakoa, urtarrilaren 11n.

**Gorka Etxeberria Urrutia** eta **Mirentxu Jaunarena Galván**, Donostia eta Txilekoa Arizkunen, abenduaren 27an.

**Richart Sausset** eta **Vollontsahondra Ninah Rasandra**, Sarakoak, azaroaren 18an.

